


Euskal Autonomia Erkidegoko BPGko hazkunde ekonomikoa %3,5 hazi da 2005eko bigarren hiruhilekokoan

Bultzada honen eragileak Lehen Sektorea eta Eraikuntza dira, eskaintzaren aldetik, eta inbertsioen kemena, eskaeraren aldetik.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak %3,5eko urte arteko hazkundea izan du aurtengo bigarren hiruhilekoan, 2004. urteko denboraldi berarekin alderatuta, EUSTATEk eginiko datuen arabera. Bigarren hiruhilekoko bilakaera ekonomikoa aurtengo lehen hiruhilekoarekin erkatuz gero, urtaroko ondorioak zuzendu ondoren, BPGaren hiruhilekoen arteko hazkundea %1,4koa da.

Euskal Autonomi Erkidegoko BPGaren urte arteko hazkundea espainiar ekonomiaren hazkundea (%3,4) baino dezimal bat handiagoa da, eta 25eko Europako Batasunerako zenbatetsitakoa (%1,3), 15eko Europako Batasunerako zenbatetsitakoa (%1,2) eta euro eremurako zenbatetsitakoa (%1,1) baino askozaz ere handiagoa da, guzti horiek gure inguruko eremu ekonomikorik hurbilekoenak izanik.

1. grafikoa. BPG merkatu-preziotan. Urte arteko hazkunde tasak. (%)



Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat.
Estatuko datuak, INE. 25eko EB-aren eta EEBBen datuak, Eurostat.

Eskaintzaren ikuspegitik, agregatu ekonomikoaren urte arteko tasaren gainetik hazi diren sektoreak Nekazaritza eta Arrantza (%7,4) eta Eraikuntza (%5,8) izan dira. Aitzitik, haietako lehenaren hiruhileko arteko profila beheranzkoa da. Bigarrenaren urte arteko tasa, berriz, aurreko hiruhilekoarena baino bost dezimal handiagoa da.

1. koadroa. BPG merkatu-preziotan. Eskaintza. Kateatutako bolumen-indizeak. Urte arteko hazkunde tasak. Euskal Autonomia Erkidegoa

	2003	2004	2004				2005	
			I	II	III	IV	I	II
Nekazaritza eta arrantza	-5,7	16,8	27,9	11,7	20,8	8,7	7,5	7,4
Industria	1,2	2,5	2,5	2,6	2,7	2,0	1,4	2,3
Eraikuntza	4,9	5,4	5,8	5,5	5,5	4,7	5,3	5,8
Zerbitzuak	3,2	3,1	3,1	3,3	3,0	2,9	3,0	3,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	7,6	4,1	3,6	4,2	3,6	4,9	5,4	5,8
BPG merkatuko preziotan	3,1	3,3	3,5	3,5	3,4	3,1	3,0	3,5

Egutegiko eta urtaroen eraginez zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: Eustat

Industria sektoreak, gainerako sektoreen urte arteko hazkunde mailetara iritsi ez arren, azelerazio sintoma argiak dauzka, bai urte arteko bilakaeran bai hiruhileko arteko ibilbidean. %2,3ko urte arteko tasa dauka lehen hiruhilekoaren %1,4aren aldean eta, gainera, %1,8ko hiruhileko arteko hazkunde dauka.

Merkatuko zerbitzuen urte arteko hazkunde tasa BPGarenaren bezalakoa da (%3,5); urteko lehen hiruhilekoan, ordea, %3,2 izan zen. Hiruhileko arteko bilakaerak %1,3ko hazkunde markatu du. **Merkatukoak ez diren zerbitzuen** balantzea zerbait txikiagoak direnez gero, **zerbitzuek oro har** erregistro diskretuagoak dituzte: %3,2ko urte arteko tasa eta %1,2ko hiruhileko arteko hazkunde tasa.

Eskaeraren aldetik, barne-eskaerak %3,5eko urte arteko hazkunde biltzen du 2005eko bigarren hiruhilekoko honetan, tasa BPG osoarekin parekatuz. Kanpo saldoak beraz (esportazioen eta inportazioen aldaerak, alegia) ez dio ekarpenik egin, ez positiboa ezta negatiboa ere, BPGaren bilakaerari. Esportazio osoen eta inportazio osoen urte arteko hazkunde %1,9 izan da.

Etxeetako kontsumo gastuak urte arteko emaitzak hobetu ditu; lehen hiruhilekoan %2,9 izatetik bigarrenean %3,2 izatera igaro da. Halere, hiruhilekoen artean desazelerazio txiki bat dago.

Kontsumo publikoko gastuak bilakaera moderatua izan du urte arteko bilakaeran. %2,7 igo da lehen hiruhilekoko %2,6aren aldean. Aitzitik, hiru hilabete arteko aurrerapena hobetu du.

2. koadroa. BPG merkatu-preziotan. Eskara. Kateatutako bolumen-indizeak.
Urte arteko hazkunde tasak. EAE

	2003	2004	2004				2005	
			I	II	III	IV	I	II
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	3,7	3,2	3,9	3,2	2,9	2,8	2,9	3,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	5,8	2,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,6	2,7
Kapital-eraketa gordina	5,0	4,9	4,7	4,8	5,0	5,1	5,0	5,2
Barne-eskaria	4,4	3,5	3,9	3,5	3,4	3,3	3,1	3,5
Guztizko esportazioak	-0,8	8,3	8,7	7,8	9,0	7,6	2,1	1,9
Guztizko inportazioak	1,2	8,4	9,3	7,7	8,9	7,9	2,1	1,9
BPG merkatuko preziotan	3,1	3,3	3,5	3,5	3,4	3,1	3,0	3,5

Egutegiko eta urtaroen eraginez zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: Eustat

Urteko lehen hiruhilekoan gertatzen zen bezala, eskaeraren elementurik aktiboena, 2005eko bigarren hiruhileko honetan ere, Kapital Eraketa Gordina izan da, hau da, inbertsioak, %5,2ko urte arteko hazkundera izan dutenak, lehen hiruhilekoko urte arteko tasa (%5,0) bi dezimaletan gaintutuz. Eraikuntzak eta ekipamenduko ondasunen erosketek ekarri dute ekoizpen inbertsioaren portaera ona.

Okupatutako langileek 2005eko lehen hiruhilekoko urte arteko erregistroa ehuneko lau puntutan hobetu dute; 2005eko bigarren hiruhilekoan %2,4an jarri dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko BOGaren 2003ko behin betiko datuak eta 2004ko zenbatespenek, EUROSTATek proposatutako aldaketa metodologikoak egin ondoren, %3,1 eta %3,3ko hazkundera izan dute, hurrenez hurren.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01011 Vitoria-Gasteiz.

Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José M^a Agirre

Tlf:+34-945-01 75 80 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp

METODOLOGIARI BURUZKO OHARRA

2005eko bigarren hiruhilekoko Hiruhilekoko Kontuak eta, modu paraleloan, EUSTATEk aurkeztu dituen 2003ko behin betiko datuen Kontu Ekonomikoetan eta 2004ko datuen aurrerapeneko Kontu Ekonomikoetan, metodologia aldaketak daude. Neurri handi batean, Europako Batzordeak hartutako erabakien ondorioz beharrezkoak dira aldaketok, gaur aurkeztutako datuen eta serieen zenbatespenetan eragina dutelako, agregatu makroekonomiko nagusietarako 1980. urtetik berriro zenbatetsi direnak.

Ondokoak dira aldaketok:

1. Bolumena neurtzeko metodo berri bat ezarriko da, orain artekoak erabiltzen zirenak (oinarri finkoko prezio konstanteen balioak) ordezkatzuz.
2. Zeharka Neurtutako Finantza Bitartekaritzako Zerbitzuak sektore erabiltzaileen artean banatzea.
3. Administrazio publikoen sektore instituzionalaren zenbatespenean aldaketak.

Bolumena neurtzeko metodo berria: serie ekonomikoen kateatzea (1)

Metodologia-aldaketa hau Batzordearen 98/715/CE erabakia betez hartu da. Erabaki horren bidez, izan ere, Europako Batasuneko kide diren estatuei 2005. urtetik aurrera aldaketa hori egiteko agindu zitzairen.

Orain arte eskaintza eta eskaerako agregatuak termino errealean edo konstanteetan aurkezten ziren, oinarritzko urte bati dagokionez, eta urte horrekin alderatuta deflaktatzen ziren, prezioaren osagaia kenduz. Bolumen neurketa berriarekin, hazkundeak ez dira oinarritzko urte bati buruzkoak izango (esaterako, gure kasuan, 2000. urtea); erreferentziako urtea, aitzitik, aurreko urtea izango da, oinarri finkoko sistema batetik oinarri mugigarriko sistema batera igaroz. Aurreko urteko prezioen arabera neurketa hauek kate-mailak dira. Kate-maila horien produktutik, kateatutako bolumen-neurketen serie tenporala aterako dugu, indize-zenbaki gisa aurkeztuko direnak, erreferentziako urte baten aldean, 100 balioa izango duena.

Hiruhilekoen kontuetarako, kate-mailen kalkulua aurreko urteko prezioen egitura erabiliz egiten da, zenbatekoak baloratzeko, urteko kontuen antzean, eta kateatze edo teilakatze metodoa urteko teilakatzea deritzona da, kalkulaturako lau kate-mailak kateatzen dituen, aurreko urteko kateatutako indizearekin biderkatuz; horrela, hiruhileko eta urteko kontuen artean koherentzia gordetzen da.

Zeharka Neurtutako Finantza Bitartekaritzako Zerbitzuen (ZNFBZ) banaketa (2)

Finantza-erakundeek mailegu eta gordailu operazioetan eskuratzen duten zeharkako ordainketa dira ZNFBZak. Orain arte, SEC-95 Kontuetarako Europako Sistemaren arabera, ZNFBZen tratamenduan, ZNFBZe "Banka" jardueraren adarreko ekoizpena esleitzen zitzairen, eta produkziarik ez zuen alegiazko adar baten bitarteko kontsumoa. BPGak ez zuen ZNFBZen balorazioaren eraginik jasotzen.

Kontseiluaren 448/98 eta 1889/2002 Araudien bidez, SEC-95 Araudia aldatzen da, eta 2005. urtea izendatzen da ZNFBZak finantza-zerbitzuen erabiltzaileen artean banatu behar diren urte gisa eta, horrenbestez, alegiazko adarra desagertu behar den urte gisa. Beraz, jarduera-adar ezberdinek ZNFBZko kontsumo ertaina izango dute, eta etxeek, dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta administrazio publikoek ZNFBZko kontsumo finala izango dute. Era berean, ZNFBZko esportazioak eta inportazioak egongo dira. Horrela, ekonomiaren BPGa orain badago ukiturik, maila handitu baitzaio.

Administrazio publikoen sektore instituzionalaren zenbatespenean aldaketak.

Kontu Ekonomikoen serieak berriro zenbatestera behartzen duten metodologiako beste aldaketa batzuk egoteak ekarri du administrazio publikoen sektore instituzionalaren zenbatespenean aldaketak sartzea aldi berean. Bi izan dira:

1. Administrazio publikoen sektorearen mugaketa berria. Lehen sektorean ez zeuden unitate berriak sartu dira, eta SEC eta Eurostatek ezarritako irizpideak bete dira.
2. Eskualdeetan banatutako Administrazio Orokorreko azpisektorearen zenbatespen berria.

Oro har, administrazio publikoen sektore berriaren zenbatespen berriak kontsumo publikoaren gehikuntza ekarri du aurreko BPGaren zenbatespenaren aldean.

Aldaketa hauen kuantifikazioa

Bolumeneko kateatzea neurtzeko metodo berriak eragin txikia dauka epe laburrean oinarritzko urteen aurreko metodoaren aldean. Baina Euskal Autonomia Elkargoaren BPGrako serie luze bat hartuz gero, esaterako, 1980. urtetik 2000. urtera arte, 20 urteko denboraldi honetako hazkundearen zenbatespena, metodo berriarekin, %76,94 litzateke bolumenean; metodo zaharraren bidez, oster, %72,97 litzateke, hau da, ehuneko ia lau puntuko aldea metodo berrian, urtero BPGaren hazkundean ehuneko bi zentesima baino gehiagoko eragina izan ohi ez duena.

BPGaren mailari dagokionez eta azken urtea erreferentzia gisa hartuta, BPGaren behin betiko zenbatespenekin (2002. urtea), sartutako hiru aldaketek, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoaren BPG maila %3,48an igotzea dakarte.

(1) Begiratu www.eustat.es Hiruhileroko kontu ekonomikoak eta BPGa eta banaketa, Metodologia atalan, Kontu ekonomietako serieen kateadura

(2) Begiratu www.eustat.es Hiruhileroko kontu ekonomikoak eta BPGa eta banaketa, Metodologia atalan Zeharka neurtutako finantza bitartekaritzako zerbitzuen tratamendua

Sartzeko bideak:

[Estatistika informazioa/Zuhaitz tematikoa/Kontu Ekonomikoak eta Sektore Publikoa/Hiruhileroko kontu ekonomikoak/Metodologia](#)
[Estatistika informazioa/Zuhaitz tematikoa/Kontu Ekonomikoak eta Sektore Publikoa/ BPGa eta banaketa /Metodologia](#)